

Joshua A. Fishman-en hil-berria (1926-2015)

ZALBIDE, Mikel

Euskaltzain osoa eta Euskararen Historia Soziala egitasmoaren zuzendaria

New York-en, laurogeita zortzi urte zituela, hil zitzaigun iazko martxoaren 1ean Joshua A. Fishman. Nahigabea sortu zuen hil-berriak Euskaltzaindian: Akademia honen ohorezko kide genuen. Euskaraz ez zekien Joshuak, baina euskararen gizarte-dimentsioaz, eta egungo egoera onbideratzeko aukerabide posibleez, gutxik bezalako ezagutza metaturik zuen. Ezagutza teorikoa batetik, eta hainbat ebidentzia enpiriko bestetik. Unibertsitate- eta ikerketa-alorreko gogoetagine sakona izanik da Fishman mundu zabalean: zerbaitegatik deitu zion Ofelia Garciak, bere hil ondoko *in memoriam* argian, «a beloved teacher and influential scholar». Erdiz erdi asmatu zuen horretan, gure ustez, Ofeliak. Bere jakituria sakonaren perspektiba teorikoak eta zenbait analisi enpirikok nabarmen aberastu izan du mundu zabaleko hainbat ikertzaile, irakasle eta ikasle. Baita ahuldutako hizkuntzak indarberritzen saiatzen diren kontinente guztietako *language loyalist* edo hizkuntza-zale saiatuak ere. Ezin egokiago azalduz dago hori esaldi honetan: «thousands of students throughout the world (..) have learned much from him about sociology of language, the field he founded, and also about the possibility of being a generous and committed scholar to language minority communities»¹. Euskaltzainok ez ezik euskaltzaleok ere badugu hortaz zorra, eta ez nolana hikoia, berarekin: atzerritarren artean Joshuak erakutsi digu inork baino argiago, zientzia-arauz ordura arte landu-arin zegoen alor hori perspektiba teorikotik nola joratu. Ekarpen handia egin digu, horri eskerrak,

¹ Ofelia Garciaren hitzak dira horiek.

langintza horretan ari garen guztioi. Hori aski ez bailitzan, beste motibo bategatik ere biziki estimatua dugu Fishman: euskaltzaleoi eta language-loyalist guztioi gizabide zabal eta orbanik gabea, bihotzez eskertzen zaiona, erakutsi izan digu beti. Mundu zabaleko hitzun-herri txikionganako onginahia eta errespetua, jakinduria teoriko sakonaren pare, nortasun-seinale argiak izanik ditu bizialdi osoan.

Jatorriz judu genuen Joshua A. Fishman. Europako ekialdetik, beste askoren pare, Estatu Batuetara joandako familia judu batean jaio zen Filadelfian, 1926an. Arbasoen *Jiddish* hizkuntza Kontinente Berrian bizirik gordezen gogor saiatzen zen familia-giroan eta ingurumen hurbilean hazia dugu, nolana ere, bere haurtzaro-gaztaroetan. Egunero galdetzen omen zien aitak, Joshuari eta bere arrebari, artean neska-mutil zirelarik: «zer egin duzue gaur gure hizkuntzaren alde?» Uriel Weinreich linguista famatua lagun mina izan zuen, bide batez esanik, gaztetan eta geroxeago, unibertsitariotara. Ikasketak amaiturik unibertsitateko irakasle, ikertzaile, aholkulari eta argitaratzaile nekaezin izanik da gero, urte luzez. Hizkuntza-soziologiaren sortzaile eta bide-urratzaile nagusien artean kokatu ohi da maiz, arrazoi handiz, Joshua A. Fishman. Zenbaiten esanean berak emana-edo da, Estatu Batuetan, jakintzagai horri buruzko lehen kurtso unibertsitarioa. Kronologiaren aurrelari izateaz gainera, hizkuntza-soziologiaren alorreko hainbat kontzeptu giltzarri sortzen, osatzen, birmoldatzen edo zehazten saiatua da bizialdi akademiko aberatsean.

Erreferente argi izanik da, orobat, jakintza-alor horretako hainbat ekarpen argitaratze-bidean jartzeko orduan: bai bere liburu-artikuluak, eta bai beste hainbatena, zabaltzen eta jakitera ematen gutxik bezalako urratsak eginik ditu 1965 ingurutik aurrera. Autore edo bilduma-prestatzaile gisa paratu dituen liburu ugarien artean hor daude, esate baterako, ondoko hauek: *Language Loyalty in the United States* (1966), *Language problems of developing nations* (1968), *Bilingualism in the Barrio* (1968/1971), *The Sociology of Language: an interdisciplinary social science approach to language in society* (1972), *Language & Nationalism: two integrative essays* (1972), *Advances in language planning* (1974), *Bilingual education: an international sociological perspective* (1976), *The Rise and Fall of the Ethnic Revival* (1985), *Reversing Language Shift: Theory and Practice of Assistance to Threatened Languages*

(1991), *In Praise of the Beloved Language; The Content of Positive Ethnolinguistic Consciousness* (1997), *The Multilingual Apple: Languages in New York* (1997), *Can Threatened Languages Be Saved?* (2000), eta *Do Not Leave Your Language Alone: The Hidden Status Agendas Within Corpus Planning in Language Policy* (2006).

Artikulu arras ugarietan, berriz, hainbat ekarpen eginek du ondoko gai hauetaz:

- a) hizkuntza-soziologia teorikoaren egitura nagusia, bai perspektiba deskriptiboan eta bai dinamikoan, inork gutxik bezala landu izan du urte luzez. Azterbide deskriptiboari dagokionez, bere «who speaks what language to whom and when» funtsezko mugarri da orain ere, lehenengoz formulatu zuenetik 50 urte beteko direlarik laster²; diglosiari eskaini zion formulazio zabaldua³ eta diglosia/elebitasun aukera-marko laukoitzaren ekarpena, era berean, Fishman-en muin-muineko oinarri kontzeptual dira. Bada Joshuak bere traiektozia intelektualean, eta bere hobespen diziplinario-metodologikoetan, aho batez aitortzen zaion oinarri-oinarrizko ezaugarria: arras perspektiba linguozentrikora makurturiko ikuspegitik perspektiba soziozentriko(ago)ra eramán nahi izan du beti bere ikerbidea eta bere konstruktutheori-koen egonarría⁴.

² Koldo Mitxelena badu, orientazio soziolinguistikozko bere lanetan, Fishman-en «who speaks what language to whom and when» horren oihartzunik.

³ Diglosiaren formulazio zabaldu horretan, Joshuak berak argi eta leial aitortu izan duenez han-hemen, ez zen hutsetik abiatu: John A. Gumperz-en ekarpenak oso kontuan izan zituen filadelfiarrak. Ez, egia esateko, diglosia kontuan bakarrik: Gumperz-en eta Dell Hymes-en *Ethnography of communication* azterbidea ere aski kontuan izanik du Joshuak, *interactional sociolinguistics* barne delarik, bere hainbat formulaziotan.

⁴ Azken urteetan, lehen hizkuntza-soziologiarekin bezala, hizkuntzaren eta erlijioaren arteko harremanez ere arduraturik ibilia dugu. Hor ere, 40 urte lehenago hizkuntza-soziologiarekin bezala, funtsezko hautapen soziozentrikoa egin zigun berak. Hona, horri buruzko atalean, hitzez hitz zer dioen: «I suggest that we must do today in the sociology of language and religion that which we tried to do before in the sociology of language: find a theoretical parental home for ourselves. Only those who have a parental home can mature and leave it to build one of their own! Relative to other orphans, we are fortunate in only one respect: we can adopt a parental home rather than

- b) Hizkuntzaren eta hartaz baliatzen den gizataldearen arteko lotura-moldeak ere berariaz landurik ditu Fishman-ek, artikulu batean baino gehiagotan. Sarri azpimarratu izan duenez, etnizitatearekin⁵, erlijioarekin⁶, ideologia⁷ politikoekin⁸ eta hizkuntzen aldeko mugimenduekin⁹ hertsiki loturik egon ohi da hizkuntza. Lotura horiek maiz aztertu izan ditu Fishman-ek, bai oro har eta bai hiztun-herri txikien alorrean.
- c) Hizkuntzen corpus- eta status-plangintzan ere aurrelari izanik da. Hizkuntzen corpus-plangintzaren sailean ondoko puntuok arakatuak ditu, besteak beste: corpus-plangintzak status-plangintzaren xedeak

needing to wait to be assigned to one by others (such as happened in the assignment of sociolinguistics to linguistics). For me, the parental home that I would like to adopt is one that consists of a sociology of language that is richly informed by sociology proper. I have reason to hope that such a combination will provide a nurturing point of departure. This is so not only because I am convinced that any disciplinary point of departure is better than none, but because both of the above mentioned prospective «parents» (sociology and the sociology of language) have already provided much evidence of the stimulation that they could provide for our fledgling enterprise.» (Tope Omoniyi eta Joshua A. Fishman editore, 2006: *Explorations in the Sociology of Language and Religion*).

⁵ Lan ugari, eta aski sakonik, eginik du Fishman-ek alor honetan: hiru adibide baizik ez ematearren demagun, batetik, 1985eko *The Rise and Fall of the Ethnic Revival: perspectives on language and ethnicity*. Berlin eta New York: Mouton; ikus, bestetik, 1988ko *Language and Ethnicity in minority sociolinguistic perspective*. Clevedon, Multilingual Matters; demagun, azkenik, 1999ko *Handbook of Language and Ethnicity*.

⁶ Ikus adibidez, Tope Omoniyi eta Joshua A. Fishman editore, 2006ko *Explorations in the Sociology of Language and Religion*. Amsterdam: John Benjamins.

⁷ Demagun bere 1987ko *Ideology, Society and Language: The Odyssey of Nathan Birnbaum*. Ann Arbor: Karoma Publishers.

⁸ Bere *Language and Nationalism* atalbikoa funtsezko ekarpena da egungo egunean ere, abertzale-tasunaren eta hizkuntzaren arteko lotura-bideak aztertu nahi dituen edonorentzat. Baita gure arteko kontu askotxo argitzen lagundu dezakeen *nationalism* eta *nationism* arteko bereizbide zorrotza ere.

⁹ Gogoratu, lehenagoko eta beranduagoko iturrietara jo gabe, 1966ko *Language Loyalty in the United States* erraldoia.

nola islatzen dituen¹⁰; albo-hizkuntza indartsutik urruntzeko ahaleginak (*Ausbau*-saioak)¹¹, garbizaletasuna¹², hizkuntza klasikorantz hurbiltzeko ahaleginak, pan-mugimenduak; idazteko sistemen sorrera¹³, estandarizazioa eta berrikuntza; hizkuntza-plangintzarako akademien eta antzeko agentzien jardura. Status-plangintzari dagokionez, bestalde, aparteko lekua eskaini izan die han-hemengo kasuei (tartean, nola ez, Yiddish-ari). Larri ahuldutako hiztun-herrien indarberritze-saio askok bere erronka nagusia non duen behin eta berriro gogorarazi izan du: *revernacularization*-xedean edota, egoera hain larria ez denean, belaunez belauneko transmisio naturala bermatzeko lanetan.

- d) Hezkuntza elebiduna. Estatu Batuetako hezkuntzari eskainia dion berariazko arretaz gainera leku askotako hezkuntza-sistema elebidunak aztertu nahi izan ditu: bai sistema publikoak eta bai hiztun-elkarre txikiek beren kabuz antolatutakoak. Egoera elebidunetan nork bere hizkuntza bizirik gordetzeko egiten diren ahaleginak bereziki izan ditu gogoan: bai jatorrizko hiztunen ezaguera aberastea helburu duten saioak eta bai bertako beste hizkuntza irakastea xede dutenak. Aztergai izan ditu, orobat, praktika eta jokabide horietarako justifikazioak eta ideologiak. Aurrez aurre aztertuak ditu, azkenik, ahuldutako hizkuntzak indarberritzeko asmoz eskola-alorrean egiten diren

¹⁰ Demagun 2006ko «*Do Not Leave Your Language Alone: The Hidden Status Agendas Within Corpus Planning in Language Policy*». Lawrence Erlbaum Associates.

¹¹ Heinz Kloss-ek 1929ko eta 1952ko *Abstand- und Ausbausprachen* kontzeptu-multzotik jasoa du Fishman-ek, behin eta berriro argi aitorturik digunez, *Ausbau*-saioen perspektiba teorikoa eta aukera terminologikoa.

¹² Era askotara azaldu izan du Fishman-ek garbizaletasun-saioen ingurumen soziokultural eta soziopolitikoa. Baita era guztietako corpus-plangintza saioen ikuspegi ximpleegiaz diharduten «aditu»-en oinarri-oinarritzko hanka-sartzea ere. Ikus, adibidez bere «*Modeling Rationales in Corpus Planning: Modernity and Tradition in Images of the Good Corpus*», in Cobarrubias eta Fishman editore, 1983: *Progress in Language Planning*.

¹³ Ikus, adibidez, 1977ko 1977 *Advances in the creation and revision of writing systems*. The Hague: Mouton.

ahaleginak eta, oro har, eskola bidezko indarberritze-lan gehienek dituzten berezko mugak¹⁴.

Guztia ez da halere, Fishman-en kasuan, jakitun erraldoiaren jarduera bakartia izan. Aparteko ekarpena eginik du, horrezaz gainera, jakintza-adar berria esparru akademikoan ezagutarazten eta, lankide- zein ikertzaile-talde zabala eratuz, zurkaizten. Hor dago, batetik, Mouton de Gruyter-en bidez argitara emandako *Contributions to the Sociology of Language* (CSL) liburu multzo zabala, 200 aletik gora doana. Ekarpenerik sendoena, horrekin batera eta agian horren gainera, beste hau du ordea: *International Journal of the Sociology of Language* (IJSL) aldizkari famatua. Berak fundatua da IJSL eta, *General Editor* gisa, hil arte berak zuzendu izan du etengabe, berrogei bat urtez kaleratuz. Aldizkari horrek bizirik dirau egungo egunean ere.

Hiztun-elkarte txiki bateko kide izanik, ahuldutako hizkuntzen gainbehera eta bizirik irauteko nekea argiro ulertzen saiatu izan da Fishman: gorago azaldu dugunez bere arbaso-hizkuntza, *Jiddish* delakoa, gaztetatik saiatu zen babesten eta, lagungarri teorikoz zein oinarri enpirikoz, indartzen. Helduarora iritsi ahala, horrezaz gain, berariazko ikergai bihurtu zuen Jiddish-aren alorreko hezkuntza elebiduna, soziologia eta historia soziala. Geroxeago, etxeoaz gainera, han-hemengo hiztun-herri txikiak ere aztergai izanik ditu. Mundu zabaleko hiztun-elkarte ahul edo txiki askoren egoera aztertzen saiatu da horretarako: Zelanda Berriko maori-ak, frisiarrak, katalanak, irlandarrak, galesak, New York-eko puertoricarrak eta Ipar Amerikako navajoak, besteak beste, maitez eta ardura handiz arakatuak ditu.

Euskal Herria eta euskara ere berariaz aztertu zituen. Hainbat harreman izan zuen, horretarako, euskaldunokin. Iker-bisitaldiak 1980ko hamarkadan egin zituen, Eusko Jaurlaritzaren era bateko edo besteko eskariz. Hizkuntza-plangintzazko jardunaldian¹⁵ (1986), II. Euskal Mundu

¹⁴ Ikus, adibidez, Bilbon 1989an ingelesez irakurri zuen eta gero (1990ean) euskaraz eman genuen «Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan» in *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua*.

¹⁵ Juan Cobarrubias irakasle amerikarraren eskutik, eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusi (gero sailburuorde) zen Mari Karmen Garmendiaren eskari ofizialez, egin zuen Fishman-ek lehenengo bisita hura. Euskara indarberritzeko ahaleginez ematen genizkion iritzi-azalpenak egonari handiz entzun ohi zituen, eta ohar sakon, zorrotz eta argigarriak eskain-

Biltzarrean¹⁶ (1987) eta Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresuan¹⁷ (1989) jardundakoa da, besteak beste¹⁸. Lehentasunak non jarri behar genituzkeen, eta non ez, esanik digu behin baino gehiagotan, hitzez eta idatziz. Hori guztia dela medio, euskararen egoerak oihartzun ozena jaso du bere hainbat argitalpenetan. Bereziki, arestian aipatutako *Reversing Language Shift* liburuan. Kapitulu osoa eskaini zion bertan frasieraren eta euskararen arteko konparazio soziolinguistikoari. Berak zuzentzen dituen elkarlanean argitalpenetan ere gure kasua lantzeko aukera eskaini izan du sarri: hor dago, esate baterako, *Can Threatened Languages Be Saved?* ezaguna. IJSL aldizkariaren ale bat, bestalde, euskararen egoera soziolinguistikoa deskribatu eta eztabaidatzeari emana dago ia osorik: ikus *The case of Basque: from the past, towards the future*. Liburuki-kidea izanik du argitalpen horrek gure artean: *The case of Basque: Past, Present and Future* (2006).

Azken urteotan, gorago azaldu denez, ohorezko euskaltzain izan dugu Joshua A. Fishman. Bistan da zergatik izendatu zuen Akademiak ohorezko euskaltzain: aparteko ekarpenak eginik zituen euskararen oraingo egoera sozialaz eta, belaunaz belauneko transmisio-jarraipena ardatz izanik, berau indarberritzeko aurrerabide posibleez. Ahuldutako hizkuntza indarberritzeko saio posibleak perspektiba teorikotik lantzen saiatu zen bere ekarpen horietan, lehentasunak non ezarri behar genituzkeen seinalatuz argi: arnaguneen berariazko garrantzia Fishman-en lehentasun-eskema horren muin-muinean dago. Berak fundaturiko jakintza-esparruan, genezakeen apurretik eta genezakeen heinean, aurrera egin nahi genuenoi onginahia, maisu-laguntza eta atxikimendu argia erakutsi zigun maiz, horrezaz gainera. Bazen beraz motibo

tzen zizkigun ordainetan. Gomendio-idazki espresa ere eskaini zigun egonaldi haren amaieran. Era berean egin zuen II. Euskal Mundu Biltzarreko parte-hartzea ere.

¹⁶ Hizkuntza-soziologiaren aztergai zabala jorratu zuen II. EMBko bere txostenean: zein gizar-te-faktorek iragartzen du sendoen mundu zabaleko estatuen hizkuntza-homogeneotasuna edo heterogeneotasuna?

¹⁷ Ahuldutako hizkuntza indarberritzeko orduan eskolak zertan lagundu dezakeen, eta zertan ez, azaldu zuen berariaz Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresuan.

¹⁸ Eusko Jaurlaritzarekin izandako lankidetzaren harremanen ildotik, Bourhis eta Tabouret-Keller irakasleekin batera 1991ko inkesta soziolinguistikoaren diseinuan ere parte hartutakoa da, oker ez bagaude.

sakonik, axaleko edergailu distiratzailuez gainera, ohorezko kide izendatzeko. Euskaltzain-diploma bere etxean, New York-eko Bronx-en, eskuratu genion. Familiaz eta unibertsitate alorreko adituez inguraturik egin zigun harrera, bere emazte Gella Schweid Fishman eta seme-ilobak alboan zituela. Edadean aurrera eginik zen ordurako, baina buru-argi agertu zitzaigun: esker onez eta, ohiko moduan, begitarte arraiz. Lagunarte jantzi-maitakorrean jardun genuen arratsalde hartan, *huntaz eta hartaz*, ilunabarrera arte. Asko estimatu zuen Euskaltzaindiaren ohorezko izendapen hura.

Ez da gaurko hau, inondik inora, etsipenezko lantu-jotzerik egiteko tenorea. Bai, aldiz, esker onez eta miresmen zabalez bere esan-eginak goraiatzeko unea. Hor gelditzen da maisuaren uzta, bere emaitza erraldoia. Erraldoia da kopuruz, lehenik eta behin: ehun liburu inguru eta mila artikulutik gora kontabilizatu dizkiote berrikitan. Erraldoia dugu, bestalde, landu dituen esparruen ugariagatik eta, oso bereziki, esparru bakoitzean utzi duen arrasto sakonagatik. Hizkuntza-soziologiaren oinarri teorikoak eta, aplikazio-alorrean, ele biko hezkuntza, hizkuntza-plangintza, hizkuntza eta abertzaletasuna, hizkuntza eta erlijioa edota beste hainbat alor nekez landu litezke gaur bere azalpen zehatzak, paradigma nagusiak eta aurkikuntza jakingarriak alde batera utziz. Ezinbesteko erreferentzia dira horiek, mundu zabalean: ezinbesteko erreferentzia dira eta, iragarle-lanak huts egiten ez badu, luzaroan ere halatsu izango direla esango genuke.

Gurea bezalako hiztun-herri txikiek, hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena nahi baino mehatxatuago daukatenek, badute maisu handiari zer eskertu. Milaka gara mundu zabalean, ez hiruzpalau edo bospasei, egoera horretan gauden konstelazio etnokulturalak. Egoera horren analisi intelektualari aurrez aurre heltzen asmatu izana ez da, bere merezimendu zabalen artean, gure ustez meharrena. Hori egiterakoan ez du, gainera, «han-hemengo bitxikerien» datu-bilketa izan helburu. Hilzorian dagoen «gaixo galdu»-aren kontua ez, berri-berria den eta berri-berria izaten jarraituko duen fenomeno global zabala baizik, ikertu du maisukiro. Fenomeno zabal, alde anitzeko eta multikausal hori egoki ulertzen, eta bere arazoak zentzuz onbidatzen, lagundu nahi izan digu Joshua Fishman-ek. Objektibotasuna gidari izanik beti, eta ahularen gaitasun estimu-errespetua oinarri hartuz, inork baino neurri zabalagoan eraiki du jakintza-eremu berria. Intelektual gutxi-gatik esan liteke horrenbeste. Eskerrik asko, maisu.

Eranskina: Joshua A. Fishman-ek gure artean izandako oihartzuna

Bost ataltxotan bildu dira oihartzun inprimatuak. Hona bostok, hurrenez hurren:

1. Euskal Herrian emandako hitzaldiak:

- a) Fishman J. A. (1990) Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan in *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua, Estudios y Documentos* 9 (1990: 127-140). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Artikulu berbera agertzen da, bestalde, in *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua/Primer Congreso de la Escuela Pública Vasca*, 1. tomoa, (1990: 181-188). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. [Gaztelaniazko bertsioa liburu berberetan jasota dago, honako izenburu honekin: Limitaciones de la eficacia escolar para invertir el desplazamiento lingüístico (IDL). Lehenengoan: 127-141; bigarreanean: 1, 189-196.]
- b) Fishman J. A. eta Solano F. R. (1988) *Societal Factors predictive of linguistic homogeneity/heterogeneity at the inter-polity level in II. Euskal Mundu-biltzarra: Euskara biltzarra/Congreso de la Lengua Vasca* (1988: 185-202). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

2. Euskararen egoerari buruz idatzitako dokumentu nagusia

Fishman J. A. (1991) *Reversing Language Shift: Theory and Practice of Assistance to Threatened Languages*, VI. kapitulua, 149-186. Clevedon/Filadelfia: Multilingual Matters.

3. Euskararen egoera soziolinguistikoaren berri emateko bertako zenbait adituk ingelesez azaldutakoak

- a) Azurmendi, M.-J., Baxok, E. eta Zabaleta, F. (2001) «Reversing Language Shift: the case of Basque» in Fishman J. A. (ed) *Can Threatened*

Languages Be Saved?: Reversing Language Shift, Revisited: A Twenty-First Century Perspective, 234-259. Clevedon/Filadelfia: Multilingual Matters.

- b) 2005eko uztaileko *International Journal of the Sociology of Language* (174 zkia.). *The case of Basque: from the past, towards the future*.
- c) Soziolinguistika Klusterra, 2006: The Case of Basque: Past, Present and Future. *IJSL* aldizkariak 2005ean kaleratutako «*The case of Basque: past, present and future*» ale monografikoaren jarraipen eta garapen moduan argitara emana. Orri-kopuru handiagatik lehenengoan sartu ezin ziren artikulua bigarrean jasorik daude.

4. Artikulu garrantzitsu baten euskarazko itzulpena

Fishman J. A. (1988) «Hizkuntz hedapena eta arriskuan dauden hizkuntzetarako hizkuntz politika», *Jakin*, 48, 5-21.

5. Fishman-en ikuspegi soziolinguistikoaz, euskaraz

- a) Erize, X. (1999) «Joshua Fishmani elkarrizketa» in *BAT*, 32. (Eskura Interneten: <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/820>)
- b) Hualde, J. I. (1987) «Elkarrizketa: Joshua Fishman» in *Zutabe*, 15:85-101.
- c) Izenik gabea (2000) «Joshua A. Fishman: 'Bi hizkuntza inoiz ez dira egongo oreka osoan komunitate bakarrean'.» in *Administrazioa euskaraz*, 27, 10-11 (Eskura Interneten: <http://www.ivap.com/admeusk/ae27.pdf>)
- d) Zalbide, M. (2004) «Joshua A. Fishman-en RLS edo HINBE» in www.erabili.com (sei zatitan argitaratua).